

## Alegiazko ahalegina



Iñaki Murua  
IRAKASLEA ETA  
BERTSOLARIA

**E**goera berriek besteen pausoari segi ezinean uzten gaituzte batzuetan. Halere, gure ezinaren zergatia ulertzen dugun bitartean konponbidea aurki dakioke, horretarako, interesa, gogoia, nahia eta ahala jarritz. Baina askok, hainbat gertaera, barre egin eta atzera geratu den jendea buruzko pasadizo xelebreak entzuten diren erosotasunez irensten ditu. Niri, ordea, garai batekoek ez zekiten hura ikasteko ahaleginean, haien pasadizoak pasa, esperimentatu, bizi... beharreko kontuak iruditzen zaizkit.

Horregatik, kontatu egiten ziren besteek ere jakin zezaten, eta egun, zuzenketari tokia eta denbora eskaini beharrean, paso egiten zaio behin eta berriz akats berberak errepikatzen bidea eraikiz, edo hau da niri gertatzen zaidana. Nirea bakarrik ote da arazoa? Nik ote dut pausoa segi ezina?

Gabiriar bat Ordiziara joan omen zen feria asteazken batean, orduan etortzen baitzen okulista, eta eroso eserita zegoela hasi zaio ezkerreko begian lenteak probatzen eta aldatu, probatu eta segi behin eta berriz. Beste begian ere gauza bera eta ia ordu erdiz aritu ondoren, okulistik dio “zuk bista ederki daukazu eta, zertarako behar dituzu antiojoak?”. Eta gabiriarrak aulkian goxo zetzan tokitik “nik ere badakit bista ondo daukadala, emaztearentzat behar ditut nik antiojoak!”

Garai hartan amonak, aitonak, amak... antiojo pare bera erabiltzen zuten, hori bai, sudurrean aurrerago edo atzeraxeago, neurria ongi zehazturik. Horrela uler daiteke aipatu pasadizoa eta hori betaurrekoekin bakarrik gertatzen zela, ez dentadura edo hortzeriarekin, adibidez.

Beste batean, Beasaingo antzokian, betiko butakak aldatu eta berriak jarri zituztenean, lehengo egin zen bertso saioan, betiko bertsozale ezagun bat saiora joan eta butakaren eserlekuari behera eragin eta esertzen hasi da baina hura berritua goian. Atzeko ilarako gazte koadrilari begirada zorrotza bota eta berritua behera bultzatu baina, lehengo erantzuna, berriz ere goian ipurlekua. Bigarrenean, gazteei zital, “zer, haserretu egin behar al diau?”. Gazteak apenas kontzentratu ziren saio hartan behintzat!

Ikasleei antzeko pasadizoak kontatzen sekulako algarak egin baina alegiazko ipuin gisara hartzen dituzte, nahiz eta garaiko egoeraren logikatik ulertarazten saiatu. Aurreko bi protagonistek, ordea, egoerak ulertu eta gaingitu zituzten, seguru!

Aldiz, idazlanetan egiazko alegiak behin eta berriz datozkit, sano-sano. Hona adibide batzuk:

- “Txoriek umeak egiten dituzte urtero”. Adibideak jarri ordez, habi-bideak erakustea hobe!
- “Ardiaren senarra da aharia” Zikiroa zer ote da, koinatua?
- “Behia haurdun dago... eta semea jaiotzen denean ama eta aitarekin biziko da...”. ■

## Amaren sua aitaren etxean



Miren Artetxe  
BERTSOLARIA  
@mirenartetxe

**1**952ko otsailaren 21ean bengalera hizkuntza ofizial izan zedin aldarrikatzen ari ziren manifestariak tirokatu zituen polizia pakistandarrak Dhakan. “Ama hizkuntzaren nazioarteko eguna” izendatu zuen gerora Unescok, “hizkuntza aniztasunaren aldeko” egun gisa.

Egun hauetan ez dira faltako euskara helarazi ziguten amen aldeko laudorio-txio zintzoak. Hedaduraz, andereñoek ikastoletan egindako lana gorai patuko dugu eta norbere ama hizkuntzan ikasteko eskubidea aldarrikatu (gutxituon aurkako argudioa izanik ere).

Gauzak zer diren, gure Lizardik XX. mende hasieran euskararen egoera kaxkarra emaku-

mei leporatu zien, Europatik zetozen modak berenganatzen ari zirela eta (makillajea, janzkera, orrazkera, eta erdarara jotzea barne). Ez hain aspaldi, *Txepetx* euskal soziolinguistikaren *aitak*, hizkuntzaren galeraren erantzule nagusietariko zat zituen emakumeak, “emakumeen psikologian sakonki sustraituriko motibazioak” medio “halako *señorita* aire bat” ematen zielako erdararak.

Emakumea –ama edo amagai hori– maiz ikusi baita traidore gisa hizkuntza gutxituei dagokienez ere (eta ez gurean soilik). Besteon zaintza bezalaxe hizkuntzaren erreproduktzioa bermatzea bere eginkizun den heinean, gizona baino errudunagoa baita erdaraz ari denean. ■